Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2021eko irailaren 22ko 18:00etan, Erroibarko Udala Bildu zen lehen deialdian bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: José María Eciolaza Ochoa, Juan Luis Fermin Gil García, Teresa Bidaurreta Azkarate, Miren Nekane Nuño Iturri, Ainara Ekisoain Erro eta Leire Remiro Esnoz zinegotziak, alkatea, Enrique Garralda Erro, bilkura buru izan zen, eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Gai zerrendako lehenengo gaiari ekin baino lehen, Haize Morea Taldeko zinegotziak, Remiro, EH-Bildu Taldeko zinegotziak, Nuño, eta ETI Taldeko zinegotziak, Gil, bilkura grabatuko dutela jakinarazi dute.

1.- 2021eko APIRILAREN 14ko, EKAINAREN 21eko, UZTAILAREN 29ko ETA ABUZTUAREN 19ko BILKUREN AKTAK ONESTEA

Apirilaren 14ko, ekainaren 21eko, uztailaren 29ko eta abuztuaren 10eko bilkuren aktak aho batez onetsi dira; hala ere, ekainaren 21eko bilkuraren aktaren dagokionez, Nuño zinegotziak hitza hartu du eta esan du 9. Puntuan akatsa dagoela, izan ere NUKFaren mozioa bozkatu zenean aldeko lau boto izan ziren eta ez hiru, hortaz, zuzenduko da. Eta abuztuaren 19ko bilkurari dagokionez, Ekisoain zinegotziak hartu du hitza. Argitu nahi du, eta horrela jaso da akta honetan, berak hitza hartu zuenean, esan nahi zuela Esteribarrek, Hector Nagorerekin lan egin ohi bazuen ere, kanpoko aholkularitza bat kontratatu zuela, eta ona izango zela Erroibarko Udalak gauza bera egitea, baino ez zuela interes-gatazka esapidea erabili. Idazkariak erantzun du agian Ekisoain

zinegotziak esandakoa gaizki jaso duela aktan, baina hori bera zela berak jarri nahi izan zuena.

2.- 2021eko EKAINAREN 19tik IRAILAREN 20a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, Garralda jk., 2021eko apirilaren 10etik ekainaren 18a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du. Udalkideak jakitun dira.

Remiro zinegotziak ebazpen hauei buruzko informazioa eskatu du:

122/2021 zk. duen Ebazpena, Bizkarretako elizako ezkilaren kontserbazio egoerari buruzkoa, ekainaren 16an sinatua, gaia nola dagoen jakin nahi du. Idazkariak erantzun du badakiela konpondu behar dutela eta baimendu edo ez aztertzen ari direla, ebazpenean adierazten den moduan, eta argitu du Udalak ez duela deus ere kobratuko transmisio hori egiteagatik.

123/2021 zk. duen ebazpena, derrigorrezkoa ez den irakaskuntzako eskola-garraioari dagokionez ebazpen bidez jarritako berraztertze-errekurtsoari buruzkoa, jakin nahi du ea beste mugimendurik egon zen eta ea uda honetan bilerarik deitu den gurasoek zerbitzu hori antolatzeke. Alkateak erantzun du azkeneko puntuan informazioa eman behar zuela, baina, galdetu denez, udalbatzari jakinarazi dio Arartekoaren idazki bat iritsi dela, eta erantzun egin beharko zaiola. Gurasoek antolatu duten zerbitzuari dagokionez, ezetz jakinarazten da, Nafarroako Gobernuak garraio hori diruz lagunduko duelako, eta, beraz, ez da beharrezkoa gurasoek eta Udalak ezer egitea.

Remiro zinegotziak dio 147 zk. duen ebazpenaz, zenbaki berdina duten bi ebazpen daudela, data diferentea badute ere, eta akatsa dela erantzun zaio. Dena den eta Guraso Elkarteari egindako likidazioaz ari den ebapenari dagokionez, agertzen den zenbatekoa aurrerapena egin zitzaion ebazpenean agertzen den zifra berbera da eta hori ere zuzendu behar da, baina, hala ere, deigarria iruditzen zaio aurkeztutako informazioaz aparte gehiago eskatu gabe ebazpena egitea. Lehen informazio osoa aurkezten zen, familiek ordaintzen zituzten kuotak ere sartuta, eta orain zenbateko osoak bakarrik aurkezten dira eta oniritzia ematen zaie. Deigarria egiten zaio beste arlo batzuetan ikuspegi fiskalizatzaileagoa izatea, zehazki kolektibo jakin bati zer proportziotan laguntzen zaion kontrolatzaileagoa izatea, eta galdetu nahi du ea arrazoiren bat dagoen kasu honetan beste modu batean jarduteko. Idazkariak hartu du hitza eta erantzun du dokumentazioa aurkezten dutenean zalantzak baldin baditu, telefonoz deitzen diela, udaletxera etortzen direla, eta, zalantza horiek argitzen dituztenez, ontzat ematen dituela eta ebazpena ematen dela, bai aurrerapenerako, bai azken ordainketarako. Eta ziurtzat jotzen du egiten dituzten agiriak eta argibideak egiazkoak direla.

151/2021 zk. duen ebazpena, Erroibarren barna triatlon proba egiteko baimena ematen duena, noiz egingo den jakin nahi du. Alkateak erantzun du erromatar galtzadatik pasatuko dela baina ez dakiela noiz. Jakitean esango dio.

153/2021 zk. duen ebazpena, Adanori erremonteko partidak antolatzeagatik egiten zaion dohaintzarekin eta udalak egiten duen ekarpenarekin zerikusia duena, 100 sarrera erosten dira dohaintza moduan eta sarrera horiek 5 eurotan banatzen dira, hori ez du oso ongi ulertzen. Gil zinegotziak erantzun dio Udalak 500 euroko dohaintza egiten duela, antolatzaileek Erroibarrarentzako 100 eserleku gordetzeko, eta 100 sarrera horiek salduz gero Adanok Udalaren 500 euroak gehi beste 500 lortuko lituzke.

158 zk. duen ebazpena, Sorogaingo aterpearentzako itzoz makina erosteko. Alkateak erantzun du makina hori hondatu dela eta ez zuela konpontzea merezi eta makinak Udalarenak direnez, aurrekontua eskatu eta beste makina bat erosi da.

Nuño zinegotziak hitza hartu du eta galdetu du salerosketei eta gainbalioei dagozkien ebazpenetan herria jarri ahal den. Idazkariak erantzun du Erneta andreari esango diola ebazpena prestatzean datu hori jartzeko.

3.- HASIERA BATEAN ONESTEA 2020. KONTUEN TXOSTENA.

Alkateak jakinarazi du Kontuen Batzordean 2020ko urtealdiko kontuen txostenari buruz sortutako aferak eta zalantzak idatziz erantzun direla eta zalantza gehiago dauden galdetu du, orain kontuak hasiera batean onetsi behar baitira. Nuño zinegotziak dio bere zalantza dela igorri zaien dokumentuan ez dutela aldaketarik ikusi eta idazkariak erantzun du baietz, hitz egindako aldaketak egin direla. Remiro zinegotziak hartu du hitza eta esan bai ikusi dituela aldaketa horiek, adibidez diru-sarreretan, ez zen agertzen ekonomia suspertzeko funtsari buruzko partida, eta orain 44.288,00 agertzen dira, baina, aldi berean, aldatu egin dira abeltzaintzako azpiegituren partidaren eskubide aitortuak, batzordea egin zenean 43.854,00 euro agertzen baitziren eta dokumentuan 433,00 euro agertzen baitira. Idazkariak erantzun du uste duela bidalitako idazkian hori azaltzen zela, baina, nolana ere, berriro azaldu du, partidak nahasi egin direla, ekonomia suspertzeko funtsaren sarrera abeltzaintzako azpiegituren partidaren kontabilizatu zela, ekonomia suspertzeko partidaren kontabilizatu beharrean. Eta, era berean, abeltzaintzako azpiegituren partidaren, aurreko urteko deialdiko diru-laguntzaren 433 euro itzuli behar izan genituen, orain bai eta behar bezala, kontuetan islatuta egon behar duena, eta ez zen beste kopururik agertu, 2020an ez baita ez gasturik ez diru-sarrerarik izan kontzeptu horrengatik. Remiro zinegotziak hartu du berriro hitza. Gastuei buruzko diru-sarrerak argituta, alde batetik, batzordean galdetu zuen, eta idazkariak bidalitako idazkian ere hala erantzun zitzaion, izan ere, jaurren partidaren ez zen gasturik izan, baina horrek ez luke horrela izan behar, partida horretan beti egon behar duelako gastu pixka bat; alkateak baietz erantzun du, baina kontua da 2020an ez dela gasturik izan baina bai egongo dela 2021ean, hogeita mila eta hogeita hamar mila euro

artean, eta hainbat urtetako gastuen batz bestekoa egingo denez, ez da zertan arazorik izan behar.

Bukatzeko, Remiro zinegotziak dio bere taldeari ez zaiola egokia iruditzen 2020ko kontuak 2021eko irailean onartzea. Gai horretaz aurrekontuen batzordean hitz egin genuen eta alkateak emandako argudio bat zen modu horretan aurrekontu aldaketak egitea sahiesten dela eta argi utzi nahi dut aurten 111.000 euro daudela 13 aurrekontu aldaketetan. Argi utzi nahi du modu horretan ezin dela aurrekontu aldaketak egitea sahietsi, eta bere botoa abstentzioa izanen dela adierazi du. Nuño eta Ekisoain zinegotziek iritzi bera dute.

Eztabaidatu ondoren erabaki da aldeko 6 botoz eta abstentzio batez (Remiro), bilkurako espedientean dagoen 2020ko kontuen txostena hasiera batean onartzea eta jendaurrean jartzea hamabost egunez alegazioak aurkeztu ahal izateko.

4.- 2021/2022 BASO-JARDUEREN PROIEKTUA BERRESTEA

Alkateak hitza hartu du eta baso-jardueren proiektua azaldu du, izan ere, proiektuan udalkideekin aldez aurretik hitz egindako jarduerak sartu dira, besteak beste, Odiako itxitura, Sorogaingo sasi-garbiketak, Arosako pista, Measkoitzeko pista, zoladuren hobekuntzak, Larraingoa-Ardaizko pista.

Modu berean adierazi du arazoa dagoela Jaurerriekin, 2024an bukatuko baita Nafarroako Gobernuarekin dagoen hitzarmena eta jaurerrien alokairua enkante publikora aterako duela nafartar guztiei irekia, hortaz, Nafarroako Gobernuo teknikariek izandako bileran erabaki zen, beraiek 2024tik jaurerriak kudeatuko dituztenez, obra gehiago ez egitea eta 2024a arte egindako gastuen eta diru-sarreraren likidazioa prestatzea. Baso jardueren deialdian sartutako obrei dagokienez, badaude Jaurerrietako pistak sartuak eta erabaki beharko da horiek egin ala ez.

Remiro zinegotziak hitza hartu du eta adierazi du bera egondako bileran ez zela ezer erabaki, esan zena izan zen Udalak obrak horiek egingo dituen ala ez erabaki beharko zela, baina ez zela ezer erabaki, eta berak ulertu zuela osoko bilkuran erabakia hartu beharko zela.

Alkateak berriro hitza hartu du eta horrela izan zela adierazi du eta berak proposatzen duela aurkeztutako proiektutik jaurerrietan egin beharreko jarduerak ateratzea. Nolanahi ere, Basarteak abuztuan aurkeztu eta egindako proiektua berretsi nahi da gaur, eta laguntzak emateko ebazpena iristen denean, zer sartu den ikusi, eta, jaurerriei eragiten dieten obrak diruz laguntzen badira, horiek egin ala ez erabaki.

Aho batez erabaki da:

- 1.- 6810001 kontu sailari eta 2021eko eta 2022ko aurrekontuei lotutako gastua onartzea.
- 2.- Proiektua prestatzea eta obra zuzendaritza Basarteari adjudikatzeko ebazpena berrestea, guztira 10.917,93 euroko kostua du.

2.- 2021-2022 Basogintzako jarduketan deialdira aurkeztutako proiektuaren onarpena berrestea; guztira, 99.253,87 euroko kostua du.

5.- 2021/2022 ABELTZAINZA AZPIEGITURETAKO DEIALDIA

Garralda alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du Abeltzaintza Azpiegituren laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea azaroaren 30ean amaituko dela. Deialdi honetan, Sorogainen dagoen abeltzain kopurua eta larre bolumena kontuan hartuta, Udalak puntuazio altua lortu ohi du. Hortaz, Basartearekin hitz egin beharko genuke ikusteko zeintzuk diren egingarriak diren jarduerak, nahiz eta aurten gauza handirik aurkeztu behar ez den. Dena den diru-laguntzak lortu nahi diren adostu behar da eta proiektua Basarteari adjudikatu.

Remiro zinegotziak hartu du hitza, eta esan du iaz jarduketak eskatu zirela tuberkulosiarekin izandako arazoarekin lotuz, eta galdetu du ea gai hori nola dagoen eta ea Nafarroako Gobernuak kontrolik edo jarraipenik egin duen. Alkateak erantzun du normalean teknikariek berrikusten dituztela abeltzaintzako azpiegiturek. Zinegotziak hitza hartu du berriro eta egindako obren kontrolaz ez ezik, tuberkulosiaren gai puntualaz ere galdetu du, Basarteak prestatutako txosten bat baitzegoen, eta alkateak erantzun du ikusteko dagoela prestatu zen txostena nahikoa den ala ez, eta albaiariei eskatu behar zaiela berrikusteko, eta hori egin beharko litzatekeela. Cesar Fernandez albaiariarekin hitz egin behar da, berak eman zituela gaiaren gaineko hitzaldiak, eta Basartearekin, abeltzainekin, Gobernuko albaiariekin eta Udalarekin bilera egin beharko litzatekeela; Nuño eta Ekisoain zinegotziek eskatu dute bilera horretan parte hartzea. Alkateak baietz erantzun die eta bilera urriaren 15ean eginen dela dio.

Aho batez erabaki da:

- 1.- 2021-2022 Abeltzaintzako Azpiegituretako deialdian diru-laguntza eskatzea.
- 2.- Gastua 68100000 diru-sailaren kargura onartzea
- 3.- Proiektua idaztea eta obra zuzendaritza Basarteari adjudikatzea, beti ere diru-laguntza lortuz gero.

6.- PAULA AZCONA CERDANEK ERROKO 4 POLIGONOKO 939 A LURZATIAN SUSTATU DUEN XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONESTEA.

Garralda alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du ezen, 2021eko uztailaren 28ko 134 zenbakiko alkatetza-ebazpenaren bidez hasierako onespina emanda, Paula Azcona Cerdan andreak sustatutako xehetasun-azterlana, Erroko 4. poligonoko 939 A lurzatiari eragiten diona, partzelan etorkizunean eraikitzeko baldintzak ezartze aldera, eta jendaurrean ikusgai egon ondoren, 2019ko martxoaren 21eko 55 zenbakiko NAO on argitaratu ondoren, lege ezarritako epean ez dela alegaziorik aurkeztu, eta, hortaz, onartu beharko litzateke. Baina Herri Lanetako Departamentuak eskatutako

errekerimendua ez da aurkeztu eta hori beharrezkoa da Xehetasun Azterlana behin betiko onartzeko. Hala ere proposatu du onartzea errekerimendua aurkezten bada xehetasun azterlana onartzea hurrengo osoko bilkurara itxoin behar ez izateko. Remiro zinegotziak hitza hartu du eta esan du ez zaiola egokia iruditzen sustatzaileak ez badu errekerimendua aurkezten eta txosten osoa ez badago ezin dela onartu. Ikusirik gaiarekiko iritzil bateratua ez dagoela hurrengo bilkurarako uztea proposatu da.

7.- JOSE MARIA ECIOLAZA OCHOAK AURIZBERRIN, 12 POLIGONOKO 41. LURZATIAN SUSTATU DUEN EGITURAZKO ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA

Garralda alkate jaunak hartu du hitza Erroibarko Udal Planaren egiturazko aldaketa izapidetzearen berri emateko. Aldaketa hori Erroibarko Aurizberriko Udal Planeko katastroko 12. poligonoko 41. lurzatiari dagokio, eta José María Eciolaza Ochoak sustatu du galdara-gela bat jartzeko. Alkateak jakinarazi du 2020ko uztailaren 16an Erroibarko Udal Planaren aldaketa puntuala hasieran onartu ondoren (2020/08/20ko 186. NAO), herritarren parte-hartzea, jendaurrean jartzea alegaziorik aurkeztu gabe, Jesús Aramendia Pardo eta Alberto Aldave Martinez proiektuaren idazleen erantzuna testu bategin bat aurkeztuz, Nafarroako Gobernuak hala eskatuta, eta hirigintza-zerbitzuen aldeko txostena kontuan hartuz, bidezkoa dela behin-behineko onartzea.

Nuño zinegotziak eskatu dio Eciolaza zinegotziari zer egingo den azaltzea, txostenaren hizkuntza ez baitu ongi ulertzen. Eciolaza zinegotziak hartu du hitza eta esan du hiru eraikinetarako biomasa-galdaren gela bat eraikitzea dela, unitate energetiko gisa funtzionatuko lukeena eta hiru eraikinak bateratzen dituen. Obra hori egiteko baimena eskatu du hirutan, baina hainbat arrazoiak direla kausa ez zaio baimenik eman eta orain eskatu du Irati etxeko atzealdean egiteko, hori baita leku bideragarri bakarra.

Garralda alkateak hitza hartu du berriro ere eta azaldu du prozesu osoan sustatzaileak egin zaizkion txostenak eta errekerimenduak aurkeztu eta erantzun dituela, eta orain Gobernuak eskatu diona dela hori guztia dokumentu bakarrean jasotzea eta horri testu bategina deitzen zaiola, planaren aldaketa jasotzen baitu, erakunde eta departamentu desberdinek egindako txostenak eta eskakizunak betez. Eta esaten dena da Udalak hasiera batean onartu ahal duela nahiz eta sustatzaileak aurkeztu duen, hala ere, Nafarroako Gobernuko lurraldearen Antolakuntzako Departamentura txostena igorri aurretik, aipatutako testu bategina aurkeztu behar da.

Aldeko sei botoz eta abstentzio batez (Eciolaza j) honakoa erabaki da:

1.- José María Eciolaza Ochoak sustatutako Erroibarko Udal Planaren aldaketa puntuala behin-behinean onartzea, Aurizberriko 12. poligonoko 41. Katastro lurzatiari dagokionez, Jesús Aramendia Pardok eta Alberto Aldave Martinezek 2021eko uztailaren 15ean idatzitako dokumentuaren arabera, eta testu bategina izeneko

dokumentua behar bezala izapidetuta bidaltzea Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoen Departamentura, behin betiko onar dezan.

2.- Aprobetxamenduaren gehikuntzaren % 10 lagatzeari dagokionez, adierazi behar da aldaketa behin betiko onartzen denean hitzarmena sinatuko dela hura eskudirutan ordezteko. Hitzarmen horretan igoera horren balorazioa sartuko da.

8.- ERROIBARKO EDATEKO URAREN HORNIDURA-ZERBITZUAREN ETA UR BELTZEN SANEAMENDU-SAREAREN KUDEAKETA KONTRATATZEKO BALDINTZA-AGIRIA ETA KONTRATAZIO-PROZEDURA ONARTZEA

Garralda alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du Tabar enpresarekin ura kudeatzeko zerbitzuaren kontratua amaitzen dela eta zerbitzu horren beste esleipen bat egin behar dela, eta, beraz, beste baldintza-agiri bat onartu behar dela. Era berean, jakinarazi du udalkideei bidalitako pleguko puntu batzuk aldatu egin direla, bidali zena aurreko plegua zelako eta kontratuen lege berriarekin eguneratu behar zelako. Besteak beste, kontratu berriaren epea, bost urtetarako eta ez zortzi, kontratazio mahaia, alkate ordeza ez baita Miguel Echamendi baizik eta Jose Maria Eciolaza, eta formula bidez neurtzen diren irizpideak, gehiago eta osatuagoak baitira, apirilaren 13ko 2/2018 kontratuen Foru Legean ezarritako baldintzei egokituta.

Nuño zinegotziak hitza hartu du eta kontratuari buruzko hainbat galdera egin ditu. Lehenengo galdera aurreko kontratuaren prezioari buruz eta oraingo pleguaren prezioa nola finkatu den. Hasierako prezioa 63.000 eurokoa izan zela eta KPIarekin igotzen joan dela erantzun da, eta igoera horren eta azken bi urteetan ordaindutakoaren arabera, kalkulua egin da lizitazioaren oinarritzko prezio gisa baldintza-agirian adierazitako 69.000 euroak ezartzeko. Bigarren galdera, ea enpresa aldatuz gero Tabarrek orain dituen langileak bere gain hartuko lituzkeen. Gai hori legeak arautzen du eta subrogazioa aurrekusita dago, beraz orain Tabarren kontratatua duen pertsona bere kargu hartuko luke enpresa berriak. Eta Ekisoain zinegotziak egin duen hirugarren galdera, ea enpresaren ardura den kontagailuak irakurtzea, pleguan jasota baitator. Erantzun zaio lan hori ez duela Tabarrek egitean baizik eta agoazilak eta langileek, eta pleguan jasota baldin badago, kendu behar dela beraiek egin behar ez badute. Nuño zinegotziak proposatu du agoazilari gai horretaz galdetzea eta alkateak erantzun du galdetuko diola eta ikusiz gero lan hori enpresak egitea interesekoa ez dela, kontratazio atarian argitaratu baino lehen puntu hori baldintza plegutik kenduko da.

Eciolaza zinegotziak hitza hartu du eta esan du uste duela agoazilak egin behar duela lan hori, berak matxurak kontrolatzen baititu eta horietaz abisatzen duelako eta gai horretaz arduratzen baitaa eta horrek laguntzen duelako afera hori hobeki kudeatzen.

Aldeko sei botoz eta abstentzio batez (Remiro) erabaki da Erroibarko edateko uraren hornidura-zerbitzuaren eta ur-beltzen saneamendu sarearen kudeaketa zerbitzua kudeatzeko kontratazioa arautuko duen baldintzen plegua onartzea, horretarako

prozedura irekia erabilia eta Nafarroako Kontratazio Atarian eta Plena Plataforman argitaratzea.

9.- BESTERIK

Alkateak honako informazioa eman du:

Kintoko langilegoa

Jakinarazi da lan anitz dagoela Kinton eta usotegi asko konpontzen ari direla; aldi berean goarda kontratatzekeo prozesuak aurrera darrai eta azterketaren data argitaratuko da, baina oraindik ez dakigu noiz. Remiro zinegotziak galdetu du ez den proposatu norbait kontratatzea behin behinekoz, eta alkateak erantzun dio berak proposatu zuela baina Baztanek ez zuela beharrezkoa ikusi, norbaiti erakusten zaionerako denboraldia pasatu baita. Bi udalen arteko harremana oso ona da baina azkenean ni naiz hobekien ezagutzen duena eta lan-karga handiena niretzat izan da. Horretan denbora asko eman du, Udalari kenduz, astean bitan Kintora joan behar izaten baitu. Idazkariak hitza hartu du eta esan du alkateak egindako lanaz gain, Udalaren langileak lana egiten ari direla Kintorako, bai Udalaren lan-ordutegian zein ordutegiz kanpo, eta, ondorioz, joan den urtean egin moduan lan egindako ordu horien balorazioa eginen da eta Mankomunitateari jakinaraziko zaio Udalari ordain diezaion.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Orondrizko zolaketa lanen Hirurteko Planaren ebazpena.

Jakinarazi da ebazpena iritsi dela eta Orondrizko zolaketa lanak behin betiko onartzen dituela. Proiektuaren kostua 39.845 euro gehi lansariak da, diruz lagungarria den kopurua 34.700 euro da eta hortik %85eko diru-laguntza emanen dute, hots, 29.531,82 euro. Zenbateko horiek kontuan hartuta lanak zenbateko txikiko prozedura bereziaren bidez adjudikatuko dira, apirilaren 13ko 2/2018 Kontratuen Foru Legearen 81. Artikuluan ezarri moduan.

Udalbatza jakitun da.

Erroko eskola publikoko obrak

Jakinarazi da Erroko eskolako obrak bukatu direla eta taxia gelditzen den aldean arrapala jarri dela, ikastetxeko zuzendariak hala eskatuta.

Udalbatza jakitun da.

Navarra telebisionekin sinatutako hitzarmena

Jakinarazi da hitzarmena sinatu dela Navarra telebisionekin arkeologia gai bat dela eta. Bidaurreta zinegotziak horren berri eman die gainerako zinegotziei.

Udalbatza jakitun da.

Urrobi Partzuergoa. Bilera.

Urrobi Partzuergoarekin izandako bileraren berri eman da. Horretan kontuak eta Udalak egin behar duen kitapena aurkeztu ziren; kontuak desblokeatzean Udalak kitapena egingen du.

Urriaren 4an batzorde iraunkorraren bilera egingen da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Navarra 2 haize-parkea

Jakinarazi da alegazioak aurkezteko epea urriaren 4a arte luzatu dela. Eta jakinarazpena joan den astelehenean iritsi zela.

Udalbatza jakitun da.

Amavir egoitzako bilera

Jakinarazi da Amavirko Batzorde Orokorrak bilera egin duela eta kontuak azaldu zirela; alkateak kontu horiek udalbatzaren esku utzi ditu, baita urtero egiten den auditoriaren txostena ere, eta Udal guztiek horiek onartu zituztela, baita gastuak eta 2021eko abuztuaren bitarteko plangintza ere. Nuño zinegotziak hartu du hitza eta esan du jakin nahiko lukeela Udalak Amavirren duen partaidetza eta horren gaineko informazioa jasotzeko bilera egiteke dagoela; alkateak dio ados dagoela eta bilera deituko duela portzentajea azaltzeko, baita nondik datorren portzentaje hori, zer nolako eragina dagoen, eta abar.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Arartekoa-Eskola garraioa

Jakinarazi da Arartekoaren jakinarazpen bat iritsi dela, Ana Lopez de Uraldek eta Ruth Ordoñezek egindako erreklamazioari buruzko txostena eta erantzuna eskatzeko, Udalak ez baitie laguntzarik eman derrigorrezkoa ez den irakaskuntzako eskola-garraioaren gastuei aurre egiteko.

Udalbatza jakitun da.

Oinarrizko Osasun Eskualdeko jakinarazpena

Alkateak Oinarrizko Osasun Eskualdeak emandako erantzuna irakurri du, Erroibarko Udalak eta eskualdeko gainerako udalek pediatria-zerbitzuaren ordutegi-aldaketa eskatzeko egindako eskaerari dagokionez. Eskatu den ordutegi aldaketa ezin dela onartu erantzun dute, momentuz pediatria adineko bizilagunentzako onuragarriagoa iruditzen baitzaie egungo ordutegia mantentzea: 10:40-15:10. Beste aldetik, osasun azterketak eta/edo prozesu kronikoen jarraipena egiteko ordutegia astearte eta ostegunetan 14:15ean izanen da, eta horrek lana eta familia bateratzeko lagungarria izan daitekeela uste dute. Jakinarazi dute ordutegi horiek aste honetan jarri direla martxan eta errebisioak egiteko zita ematean eskainiko zaiela familiei.

Remiro zinegotziak dio erantzuna eskasa iruditzen zaiola eta gainerako zinegotziei galdetu die ados dauden edo erantzun behar dela uste duten. Alkateak dio hurrengo osoko bilkuran hitz egingo dutela

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Mugak apurturen eskaera-Tokiko artisautza azoka

Mugak Apurtu Kultur Elkarteak herriko artisautza azoka eta gazta lehiaketa antolatu nahi ditu Sorogainen 2021eko urriaren 2an. Aterpetxearen inguruan dagoen zelaia erabiltzeko baimena eskatu du, postuak jartzeko eta aterpetxearen ondoko aretoa biltegi gisa erabiltzeko, eta konpromisoa hartu du dena garbi uzteko eta egungo osasun-neurriak ahalik eta gehien errespetatzeko eta errespetarazteko. Eskatutakoa ematea erabaki da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

10.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Remiro zinegotziak hitza hartu du eta proposatu du Sorogaingo aterpeko maizterrekin bilera egitea, lanean daramaten denboraldiaren balantzea egiteko, baldintza pleguaren betetze mailaz hitz egiteko, bere egoeraz eta zerbitzuak hitz egiteko, eta abar., eta alkateak proposamenarekin ados dagoela dio.

Modu berean galdetu du joan den urtetik egiteke dagoen Ardaizko gaiaz eta alkateak erantzun du oraindik ez dakiela ezer eta berriro ekingo diola.

Berdintasunerako Nafarroako Institutuak berdintasunaren aldeko jardueri buruz emandako diru-laguntzari dagokionez, udalbatza osoarentzako gaia dela uste du baina idazkariak berari bakarrik bidali zion. Idazkariak hartu du hitza, eta adierazi du Remiro andreari bidali ziola diru-laguntza emateko ebazpena, uste izan duelako bera arduratzen zela gaiaz, eta, gainera, ez zekiela zer urrats egin, laguntza hori izapidetu zenean oporretan zegoelako. Nolanahi ere, Remiro zinegotziak jarraitzen du, diru-laguntza eman ondoren, ikusi beharko dela zer jarduera egin diren eta zer egingo den 2022ko urria baino lehen eta otsaila baino lehen; beraz, komenigarria litzateke proiektu horretaz arduratuko den talde edo bilera bat sortzea. Talde bakoitzeko pertsona batek parte hartzea proposatzen da, eta Nuño andrea, Remiro andrea eta Bidaurreta andrea izatea zinegotziak.

Remiro zinegotziak esan du egiteke dagoela, eta uste du hurrengo osoko bilkurarako kultura eta kirolaren ordenantza jorratuko dela, eta ez daki idazkariak dokumentua prest duen ala ez. Idazkariak erantzun du ez zaiola dokumenturik eman, eta Bidaurreta

zinegotziak erantzun du dokumentua garbira pasatzeko ardua Remiro zinegotziak hartu zuela. Halaber, proiektu estrategikoekin izandako bilerari dagokionez urratsen bat egin ote den galdetu du, eta alkateak erantzun du jada eskatu dela bilera turismo zerbitzuarekin, gomendatu zen bezala. Amaitzeko, Sorogaingo etxeko biltegiaren erabilerari buruz galdetu du nola dagoen, teorian Sorogaingo errentamendu-kontratuaren barruan ez dagoelako, eta ekainean, erabiltzeko eskatu zitzaionean, ezin izan zelako egin, maizterrek okupatua zutelako. Idazkariak erantzun du harritzen dela haiekin hitz egin zuelako egun horretarako prest izan zezaten. Alkateak hartu du hitza, eta esan du berriro eskatuko zaiela urriaren 2rako dena kentzeko. Eta, azkenik, goiko salako termostatoari buruz galdetu du ea zer gertatzen zaion, kendu baitzen oraindik ez baita jarri.

Ekisoain zinegotziak hartu du hitza eta jakinarazi du aurrekoan bilera egin zutela udalek euskara teknikariarekin datozen hiru urtetarako plana azaltzeko eta datorren bilkuran aurkeztuko dela onesteko. Desfibriladoreei dagokienez, galdetu diote ea Loizun jarriko den, badaude formazioa egin duten pertsona eta beste bi egingo dutenak. Ez daki gaia osoko bilkuran hitz egin behar den edo ez den beharrezkoa. Aurten ez, baina desfibriladorea jartzeko adostasuna dagoenez, 2022ko aurrekontuetan kontuan hartuko da. Larraingoako fundazioa ere bat jartzeko interesatuta dago eta ea Udalak jarriko lukeen galdetu dute eta ezetz esan zaie entitate pribatua baita. Eta, azkenik, bi urtean behin aldatu behar diren baterien inguruan, kontzejuen kargura denez gastu hori, jakin nahi du kontzejuei jakinarazi zaien ala ez, haiekin bilera bat egin nahi baitu horretaz guztiaz hitz egiteko eta abisatzeko. Kontzejuekin ez dela hitz egin erantzun zaio.

Nuño zinegotziak hartu du hitza eta bi gauza komentatu nahi dituela dio. Lehenengoak, aktak erreparatuz, gogorarazi du legebiltzarkideek Urniza bisitatzea aurreikusita zegoela, eta jakin nahi du ea urratsik egin den, ea badakigun zertarako etorri ziren, pentsatu baitu bisita horrek errotekin zerikusia izan dezakeela, izan ere, kasualitatez, eremu horretan eragina du. Eciolaza zinegotziak hartu du hitza, eta berak ere gauza bera pentsatu zuela erantzun du, baina jaurerrien gaia eta hitzarmenaren amaiera aztertzen ari zen ingeniariari galdetu ziola eta ez zuela zerikusirik erantzun dio. Eta bigarren galdera, Loizuko gizonaren interpretazio zentroari dagokionez, lursailik aurkitu den edo zerbait egin den, eta alkateak erantzun du ezetz, baina gaiari berrekingo diola.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 20:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.